



Ohiko galderak

Nork har dezake parte prozesu honetan?

Zuian erroldatutako 16 urtetatik gorako pertsonak har dezakete parte.

Zer behar da parte hartu ahal izateko?

Parte hartzeko ez da aldez aurreko jakintza berezirik behar.

Zure egunerokoan hainbat udal zerbitzu, azpiegitura eta baliabide erabiltzen dituzu.

Hori dela eta, inork baino hobeto ezagutzen duzu zure udalerrria, bertatik bertara, eta ezagutza horrek, era berean, Zuiaren beharrak identifikatzeko bidea errazten dizu.

Zenbat diru bideratuko du udalak prozesu honetara eta nola banatuko da?

Udal aurrekontuak bi zatitan egituratzen dira: gastuen kapitulua eta inbertsioen kapitulua. Partehartze-prozesu hau gastuen kapitulari dagokio, beste ezeri ez. Zuiako udalak 15.000 euro gorde ditu 2024ko aurrekontuetarako.

Zer proposa dezaket?

Inbertsioekin zerikusia duen edozein proposamen egin dezakezu, hau da, udalak eraiki edo eros dezakeen zerbait, bai eta berritu ere. Funtsean, inbertsioak azpiegiturak sortzera eta udal zerbitzuen funtzionamendurako beharrezkoak diren ondasun inbentariagarriak erostera edo sortzera bideratutako gastuak dira.

Horrez gain, beste mota bateko proposamenak ere egin ditzakezu, baldin eta urtebetean egin badaitezke, denboran gehiago luzatu gabe. Hala eta guztiz ere, zure proposamenak aintzat hartu ahal izango dira, Zuiako herritarren onura eta ongizatea helburu badute.

Nolakoa behar du nire proposamenak? Nola idatzi behar da?

Deskriba ezazu zeure proposamena hizkuntza errazaz, zeure hitzak erabili. Hala ere, zenbat eta zehatzagoa izan eta zenbat eta informazio gehiago eman, orduan eta errazagoa izango da balioestea eta lehenestea.

Eman, mesedez, zeurekin harremanetan jartzeko informazioa, proposamenaren alderdiak edo zalantzak kontsultatu edo sakondu ahal izateko.

Zenbat proposamen egin ditzaket?

Ez dago inolako mugarik. Nahi beste proposamen egin ahal izango duzu.

Elkarteek edo taldeek parte har dezakete? Proposamena norberaren izenean egin ahal da, banako gisa, zein elkarte moduan. Alabaina, balio bera izango dute batzuek zein besteek.

Norengana jotzen dut zalantzak baditut edo gorabeheraren bat sortzen bazait?

Udaletxera gerturatu ahal zara, 656 759 461 telefonora deitu edo azuia.general@ayto.araba.eus helbidera idatzi.

Zeintzuk dira gogoratu beharreko datak?

Proposamenak egiteko epea **2023ko abenduaren 11an** hasi eta **2024ko urtarrilaren 2an** amaituko da.